



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




adats ile luzea, multzoa	« Adats luzeko mutil hura inuxente samarra eta maltzurkeriarik gabekoa izan zen beti eta hasieran ezer gutxiarekin kontsolatzen zen.»	(33)
adi-adi erne, argi	«Eta lagun biek aurkezleak lexuga zelan txikitzen zuen ikusi zuten, adi-adi .»	37
ahaztarazi burutik ezabatu	«...altxatzean biharamunean ondoriozko ondoeza ahaztarazi zien berri bat entzun zuten albistegian...»	27
aiene kexuzko oihua, intziria	«Hirugarren pisutik entzun ahal izan zituzten estudianteeek andrearen kexuak eta aieneak .»	101
aitzurtuta mozkortuta, sano edanda	«Taberna guztiak itxi ondoren hirurok aitzurtuta , etxerako bidean elkarri lepotik helduta eta kantatzen...»	44
aklaratu argitu, garbi ulertu	«Gainera kriston nahastea izango litzateke bakoitzean zer daukadan aklaratzeko ...»	70
algaraka karkaraka, kar-kar-kar	«Nire historia kontatu nion eta orduan bera hasi zen barre algaraka .»	62
amankomuneko elkarren arteko	«Gu hiruron artean ez zen problemarik egoten gurditxoan bakoitzak bere kapritxoa sartzeko amankomuneko gauzez.»	41
amantal mantala, arropa babesteko jantzi	«Teletienda programa ematen ari ziren eta aurkezlea, amantal zeharo zatarra jantzita zeukan gizon berritsu bat...»	37
antsiatsu gogo handirekin, ezinegonez	«...oporrak lehenbailehen heltzeko antsiatsu eman genituen hurrengo egunak...»	50
antxintxika arineketa, arrapaladan	«...andreaki kanitxeak loturik zeuzkan uhala tirakada batez kendu eta antxintxika galde zen itzalen artean.»	101
apeta kapritxoa	«...eta noizean behin apetak eta maniak izaten ditu...»	91
ardau ardo	«Gero txurrinplan, ardau ta pattara, katuak hartuta, sagu zabuka.»	21
ardura izan munta izan, garrantzia eduki	« Ez zion ardura . Malaga ligatzeko txoiloa bazen, ez genuen problemarik izango neska haiekin nahiz beste hamaikarekin adiskidetzeko.»	51
arduratu kezkatu, larritu	«— Ez arduratu ...»	38
arerio aurkakoa, aurkaria	«Lehenengo zeregina “profesional” bat bilatu eta arerioen artean infiltratzea izan zen.»	18
argumentazio argudiatzea, arrazoitzea	«Antonioren argumentazioa entzuten ari ziren...»	25
arineketa antxintxika	«Goiz heldu behar dut ikasgelara leku ona hartzeko. Banoa arineketa .»	73
arlote eskekoa, pobrea, bagabundoa	«Guk, berriz, hiru baserritar arlote ematen dugu...»	53
arno ardo	«...iparraldeko arno zuri gozoa...»	89
arrotz kanpotarra	«Inbasore arrotz haiek, nola edo hala, handik behin betiko botatzea.»	18
artez zuzen	«...Clavelitos kantatzen ari ziren tunoengana zuzen eta artez joan, probokazioa bilatu kalimotxoa arropetara botaz...»	17
ase sabela bete, gosea kendu	«Eta denak ondo ase ziren edandako ardo eta sagardoaz.»	107
atoan berehala	«Beltzek inguratu egin zuten estatua eta Txabiri atoan jaisteko oihuka hasi ziren.»	88
atondu ordenatu, behar bezala jarri	«Gauzak atondu eta dutxatu bitartean, estrategia antolatzen hasi ginen...»	50




atsekabe disgustua, pena	«Danirentzat atsekabe itzela izan zen hura.»	94
atso emakume adintsua, zaharra	«...izan ere, atso hura Ugazaba andrearen ama zen...»	91
aurkeztu agertu, nonbait azaldu	«Esteban eta Xabier dena ondo dakitelako eta Jokin, ezer ez dakienez, aurkeztuko ez delako.»	69
ausartu menturatu, atrebitu	«...baina ez zen ausartzen neska maiteari zuzen galdetzen...»	34
autoktono bertakoa, lekuan jaioa	«Gure neskek mutil dantzari autoktono haietariko batzuekin liatu ziren...»	57
aztoratuta asaldatuta, nerbioso, ezinegonez	«Handik gutxira Martin sartu zen etxera guztiz aztoratuta ...»	47
bahitu norbait harrapatu eta eraman	«Agian bahitzaileak konturatuko ziren euren hutsaz eta errukitzen hasita egongo ziren.»	104
baikor optimista	« Baikor samar sentiarazi zuen detaile bat egon zen...»	34
baldar dorpea	«...klase erdiak begiratu dit hain keinu baldarrak egitean...»	80
balizko ustezko	«Batzuk guztiz jota zeuden eta beste batzuk izututa ere bai, balizko madarikazioaren baten beldurrez.»	24
baranda eskudela, oratzeko ertza	«...musika zaratatsua ipinita, eta jan ostean, besoak barandan ezarrita...»	84
barre algar barre ozena	«Gero nire istorioa kontatu nion eta orduan bera hasi zen barre algaraka ...»	62
barreiatu sakabanatu, hedatu	«Pozoi hautsa erosi zuten eta gauez, atsoa eta zerbitzari desatsegina lo zeuden bitartean, lorategi osoan barreiatu zuten.»	97
barreiatu sakabanatu, zabaldu	«...lorategi osoan barreiatu zuten...»	97
batzar bilera handia	«...hurrengo gauean batzarra egin zuten etxean...»	95
begia begi truk mendekua (Ojo por ojo)	«Horixe, begia begi truk!!! »	96
behinik behin bederen, behintzat	«...estudiante haiek bizi ziren hirugarren solairua, behinik behin , hondamena zen...»	83
beltzak ertzainak	« Beltzek inguratu egin zuten estatua eta Txabiri atoan jaisteko oihuka hasi ziren.»	88
berau bera	« Berau ahots onekoa zen.»	19
berriketan hizketan, berbaz, elekan	«Denbora luzean jardun zuten berriketan , gu han ez bageunde bezala.»	52
besape galtzarbea	«...izerdi tanta lodiak besapeetatik gerrirantz jaisten sentitzen ditut eta idazten saiatzen banaiz dardarka hasten zait eskua...»	75
betazpi begi-zuloa	«Ostiral goizetan Farmaziako neska parrandazale gehienak goiz altxatu eta eskolara joaten ziren sekulako betazpiekin .»	14
bezperan eurreko eguna	«Azterketa baten bezperan egongo bagina bezala...»	59
birao madrarikazioa, hitz gorria, insultoa	«Laudorioen ostean sekulako biraoak eta zaratak entzun behar izan zituen Martinek Josuren eta nire ahotik.»	63
bizikiro asko-asko	«Eta, bestalde, Heziketa Fisikoko mutilek bizikiro estimatzen zuten euren inguruan ikusten ez zutena.»	12




bla-bla bar-bar, hizketa etengabea	« Bla-bla , Bla-bla, Bla-bla...»	73
bortxakeria indarkeria, jokabide bortitza	«EKIko mutilak, azkenean, bortxakeria hutsa irtenbide egokiena ez zela konturatu ziren.»	18
bozgorailu altaboza	« Bozgorailuetatik malagueñak entzuten ziren denbora guztian...»	57
butxatu busti, urez hondatu	«...komunak sarritan butxatzen ziren...»	83
dardaraka geldi egon ezina	«Idazten saiatzen banaiz dardaraka hasten zait eskua...»	75
dohain bertutea	«Martinek, gorputza mugitzeko zeukan dohain berezi hura aprobetxatuz...»	56
duintasunez dignitatez, txukun	«Laugarren ikasturte hartan otsaileko azterketa sasoa duintasunez gainditu genituen...»	43
edur elurra	« Edurra teilatuan, Gernikako arbola.»	45
ekidin saihestu, ebitatu	«...baina bere baitan ekidin ezinezko mendekuan pentsatzen hasi zen...»	95
ekin (zerbaiti) hasi (zerbaitetan) edo ibili	«Beste mutil koadrilarik agertu aurretik lanari ekin genion pub handi baten.»	59
ekitaldi emanaldia, funtzioa	«...propina mordoa bildu zuten ekitaldiaren ondorioz...»	21
elikadurak biandak	«Bere gustuak ez ziren garestiegiak eta bere elikadurak hiru zutabe nagusi zeuzkan	42
enroilatu harremanetan jartzeari ekin	«Ba ni gaur ez noa ohera inorekin enroilatu gabe!»	60
erabakitsu ziur erabakita, kementsu bezala	«Kalera irten eta jendez gainezka zegoen inguruko diskoteka handi baten sartu ginen, erabakitsu ...»	60
erkatu alderatu, konparatu	«Hango eta hemengo nesken portaera erkatuz , eta ordubiak arte ez ginen ohera joan...»	48
eroso 'komodoa, apatza, biguna	«Eta Txema sofa handi, eroso eta gozo hartatik altxatu zen...»	38
erreparatu zerbaitez ohartu, begia bota	«Berehala erreparatu nion besoa tabako makina baten gainean ezarrita zeukan neskato eder bati.»	60
errukibako krudela,	«... aurrerantzerako prestatuta zeuzkaten ekintzak, askoz sendoagoak eta errukibakoak izan arren, modu sotilagoan burutu beharko zituzten.»	19
eskaini opa	«Josu sokatiralaria zen eta bere gorputz mardulak berebiziko babesak eskaintzen zidan...»	43
esku-galga eskuko frenua edo balazta	«...Iñaxiok kotxeari esku-galga askatu eta aldapan behera bidali zuen.»	99
estatus egoera	«...eta gertaera bat egon zen ordura arteko estatusa hankaz gora jarri zuena...»	15
estimatu gogokoa, maitea	«...pixkanaka instrumentu hura bihurtu zen Txabiren bizitzan gauza maiteena eta estimatuena ...»	89
estolda alkantaria, isurbidea	«... zakarrontziak, estolda tapak edota hormaren baten aurkitutako kartelen bat.»	14
etsita amore emanda, penatuta	«Hain itsusiak ote gara? – Esan zuen Josuk etsita ...»	54
etxepeko etxe azpikoa	«Astelehen gau batean, etxepeko tabernan karta partida amaitu ondoren...»	46




ezkutu isilpekoa, gordea	«Komandoak prestatutako plan ezkutuaren hirugarren zatia ondo zihoan.»	23
fruizio gogo bizia	«Otordu gehienetan foie-gras nahiz saltxitxa bokatak jaten zituen eta ogia ozpinez ondo melatzen zuen, fruizio handiz irensten hasi aurretik.»	42
frustrazio itxaropen zapuztua	«Egun haiek ondo etorri zitzaizkigun haserreak eta frustrazioak apurka-apurka ahazteko, eta ostera elkartu ginerako berriro lagun onak ginen.»	64
gainezka gehiago ez sartzea, limitean	«Gorputz osoa adrenalinaz gainezka sumatzea...»	80
gaitzespen ezespina, txartzat ematea	«Era horretako gaitzespen mordoia entzun behar izan zuten EKiko mutilek eta, espero ez zuten erreazio haren ondorioz nahasturik...»	17
galdetu itaundu	«Ea zer galdetzen duen.»	73
ganbara etxeetako gordelekua	«... ganbaratik saguak, labezomorroak eta itzelezko armiarmak jaisten ziren...»	83
ganorabako kaikua	«Izan ere, azken kobazuloaren aurreko kale hartako bizilagunak nazkatuta zeuden ganorabako haien zaratarekin eta poliziari deitzen zioten askotan.»	14
gatzdun txispa duena, dibertigarria	«Martin gatzdunaren dantzatzeko estiloari esker...»	44
geldotu lasaitu, geldiarazi	«Bihotz taupadak zelan azkartzen eta geldotzen ziren nabaritzea...»	80
gizandi gizonkotea, erraldoia	«Bibotedun gizandi bat seinalatu zidan, oso itxura serioz begiratzen zidana.»	61
gonbite gonbidapena	«...eta gonbite txartelak gertatu zituzten apirilaren amaieran egin beharreko jai handi hari itxura serioagoa emateko.»	90
grin pasioa	«...bere baitan gordeta zeuzkan isilpeko grina guztiak?»	35
harriturik txundituta, mira eginda	«Joxemarik, soinujolearen argitasunaz harriturik ...»	25
hazka atzamarrekin ukitu	«Bere ile errubioa gero eta urriagoen artean hazka egiten zuen...»	43
herabeti lotsatia	«Behingoz, ahalegindu egin zen mutil herabeti hura.»	93
higuin nazka, antojua	«...andreak ez zion higuinik hartu etxe hartan bizi izateari eta bost lagunak ez ziren guztiz gustura geratu ekintza haren emaitzekin.»	98
honezkero daborduko, jadanik, ja	« Honezkero ez dakit zer ikasten dudan ere....»	72
hunkitu emozionatu	«Bereziki hunkitu ziren legionarioak kantuan, turuta jotzen eta banderak airean pasatu zirenean.»	53
hurreen antza, dirudienez	«...neskei ez zitzaien hainbeste gustatu, hurreen .»	56
hustu amaitu, garbitu	«...baina gure hozkailua hustu ondoren euren pisura itzultzen ziren...»	46
hutsal garrantzirik gabekoa	«Kontu hutsalei buruz hitz egiten jardun genuen denbora apur baten.»	61
igartzen da ezagun da, nabari da	«Ez naiz ikasturte osoan joan Legislazioko eskoletara eta igartzen da.»	68
inausi moztu, ebaki	«...arrosaldiak inausten zituenean...»	93
integraturik bertakoturik	«Ozpin hain zuzen, ez zen inoiz taldean lar integraturik egon.»	41




iragarki anuntzioa	«Hamarrak aldean hasi da; beraz, iragarki eta guzti... honezkero ezin da asko luzatu.»	67
irain laidoa, ofentsa	«...eta EKIko mutilei, ostera, sekulako irainak bota zizkieten.»	18
itaundu galdetu	«... itaundu zuen Ibanek.»	100
itxuroso itxuraz, dexente antzean	«...gabon gabeen era itxuroso baten kantatzen amaitu zuten.»	21
itzaltsu errespetagarria, ospe onekoa	«Horrelako protesta piloa entzun zen, baina berehala Pepelu itzaltsuak hartu zuen hitza...»	20
itzel handia, sekulakoa	«Isiltasun itzel hark beldurra eman zion Txemari...»	37
izorratu kaltetu, fastidiatu	«...agian atsoa izorratzeaz gain etxe honetatik botatzea ere lortuko dugu...»	96
jaramon egin kasu egin	«Besterik ezean, Marimarri jaramon egin eta estatura itzuli ginen.»	52
jelosia inbidia	«... mundu guztiak ondo zekien fama txar hura inbidiaren eta jelosiaren ondorioa zela.»	15
jorratu landu, elaboratu	«Hain zuzen, gehien jorratzen genuen gaia...»	48
kantoi izkina, ertza	«Hurrengo astean, estrategia are bortitzagoa erabili zuten: kale kantoi baten Clavelitos kantatzen ari ziren tunoengana zuzen eta artez joan...»	17
karikaturesko marrazkietakoa, komikoa	«...irakasleen maila penagarria zen eta hori dena gobernatu behar zuen zuzendaria beste inon nahi ez zuten pertsonaje karikaturesko bat zen.»	11
katu mozkorraldia	«...edateko ardoa ta pattara hartu zuten, eta katu ederra hartuta zabuka ibili ziren gau osoan.»	27
kezka ardura	«Gehienek bazeukaten kezka puntu bat euren buruetan...»	26
kikildu mekotu, koldartu	«Jokabide haren aurrean tunoak kikildu egin ziren...»	17
kilikadura kilima, azkura	«Izerdi tanta lodien kilikadura sentitzea...»	80
kiskali guztiz erre	«Kotxea minutu gutxian lehertu eta kiskali zen.»	99
kokot lepondoa	«...ez dakit, baina juxtu nire atzeko mahaian dago jarrita eta bere arnasa sentitzen dut kokotean ...»	75
komeriak arazoak	«...tabernak eta pubak ixten zituztenak eta goizaldeko azken kobazuloetan pertsiana jaitsi arte irauten zutenak; eta ixteko ere komeriak ...»	13
kristoren sekulakoa, itzela	«Gainera kriston nahastea izango litzateke bakoitzean zer daukadan aklaratzeko...»	70
kutsu ukitua, arrastoa	«...baina bere betiko amodio platonikoak maltzurkeria kutsu batez begiratzen ziola iruditu zitzaion.»	34
labealdi multzokada (promozioa)	«Zuzendaritza taldekoek EKI karrerari izen serioagoa ipini zioten eta labealdi berrietako ikasle batzuek...»	29
labezomorro intsektua (cucaracha)	«...ganbaratik saguak, labezomorroak eta itzelezko armiarmak jaisten ziren...»	83
lantzean behin noizean behin, batzuetan	«Eta haraxe joaten ziren, lantzean behin , Farmaziako neskak kafetxoa hartzera.»	12
lar gehiegi, sobera	«Bazekien Jonek Edurne menperatuta zeukala, ez zutela lar ondo tratatzen eta oso jeloskorra zela.»	34




larrua jotzeko txortan egin, amodioa egin	«Oso jatorrak zarete, baina larrua jotzeko beste batzuk nahiago ditugu...»	46
lartxo gehiegitxo	«Guztira zortzi atera zaizkit; lartxo agian.»	72
latz gogorra, leuntasunik gabea	«...kolpe latz izan zen etorrera hura jauregiko estudianteentzat...»	91
laudorio gorespina, alabantza	«Era horretako laudorioak nagusitzen hasi ziren...»	16
lebatz legatza, itsasoko arraina	«...bixigu lebatz makailau saltsan.»	21
lehentasun preferentzia	«...neska estudianteekiko lehentasuna , alegia.»	28
lemazain patroia, itsasontzi gidaria	«Eta Txabiren lidergoa berreskuratu bitartean lemazain berriak eurek izan beharko zutela konturatu ziren.»	89
lerden gizonezk katxarroa, erakargarria	«...praka labur eta elastiko tirantedunez jantzita izugarrizko ogitartekoak jaten zituzten EKiko mutil lerdenei zeharka begira.»	12
lurrina galduta usain onik gabe	«Azkenean, guztiz izerdituta eta lurrina galduta zerbait afaltzera joan ginen...»	53
madarikatu malapartatua, gogaikarria	«Konstituzio madarikatu honekin amaitu dut.»	71
madarikazioa biraoa, maldizioa	«Batzuk guztiz jota zeuden eta beste batzuk izututa ere bai, balizko madarikazioaren baten beldurrez.»	24
makal ahul	«Alde handia zegoen EKiko mutil sendoen eta tuno makal eta finen artean.»	17
makina bat hamaika, asko	«...kurtso hartan eguaren amaierako, makina bat pote zeuden pilatuta...»	46
mamorro zomorroa	« Mamorro harrapaketari eman zioten hurrengo orduetan etxekideek.»	98
mardul sendoa, potoloa, betea	«Josu sokatiralaria zen eta bere gorputz mardulak berebiziko babesa eskaintzen zidan txuletak atera eta irakasleak ikusi gabe kopiatzeko.»	43
melatu busti-busti egin	«Otordu gehienetan foie-gras nahiz saltxitxa bokatak jaten zituen eta ogia ozpinez ondo melatzen zuen, fruitzio handiz irensten hasi aurretik.»	42
melatuta blai eginda	«...azpiko arropak guztiz melatuta dauzkat jadanik alde guztietatik geratu barik ateratzen zaidan izerdiagatik...»	76
mintzatu hitz egin, berba egin	«Antonio soinujoylea izan zen gaiari buruz argi eta garbi mintzaten hasi zena.»	24
mordo piloa, asko	«Eta hauen moduko beste hobekuntza mordo bat aipa liteke azken urteotako Heziketa Fisikoko karrerari buruz...»	29
muzin egin ezezkoa eman, baztertu	«... EKiko mutilen gorputz gihartsuei eta estilo naturalari muzin egin eta kontrako aldera pasatu ziren.»	16
nagikeria alferkeria, baldarkeria, alprojarena	«Eta ondo pasatze horren barruan gauza asko sartzen ziren: denbora nagikerian ematea, parrandak egitea eta, jakina, ligatzea.»	11
neskame mirabea, zerbitzaria, otseina	«Izan ere, lehen unetik fijatu zen atsoaren neskamearekin ...»	93
nozitu pairatu, jasan, sufritu	«Koldo izan zen lehena atsoaren eraso nozitzen eta horregatik berari galdetu zioten lehenengoz...»	97
oholtza zurezko zola altua	«Baina oraintxe bertan irakaslea neuri begira dago arbeleko oholtzatik ...»	77
ondoez txarto sentitzea, gorputzaldi txar	«...altzatzean biharamunean ondoriozko ondoeza ahaztarazi zien berri bat entzun zuten albistegian...»	27



ospe entzutea, fama	«...ikerketa sakonen bitartez ospe ona eman zieten Heziketa Fisikoko ikasketei...»	29
otordu jatordua	«... Otordu gehien-gehienetan foie-gras nahiz saltxitxa bokatak jaten zituen...»	42
ozta-ozta justu-justu, ia-ia	«...txuleta/orduko batezbestekoa ozta-ozta betetzen nabil...»	71
partitu partekatu, banatu	«—Ze kabroia! —esan genion-. Lagunen artean dena partitzen da, ezta?»	51
pattar aguardientea, likorea	«...bisigua, legatza nahiz bakailaoa; edateko ardoa eta pattarra izan zuten...»	27
patxada egonarria, tenplea	«Joder, zelako patxada daukan tipoan honelako gauzetarako.»	74
pentzutan arduran, esku	«Joxemariaren pentzutan utzi zuten antolaketa, baina menuan arrainik ez sartzeko eskatu zioten.»	26
petral jasanezina, gogaikarria	«...hurrengo egunean zerbitzari gaztea etxetik bota eta haren ordeaz umore petraleko emakume jasanezin bat kontratatu zuen...»	94
pilatuta metatuta	«...etxe ostean pilatuta zeuden bizikleta haietariko bat hartu eta zakar artera botatzeko...»	95
popandi ipurtandia	«Altxa eskuak, atso popandi horrek!»	101
potra izan zorte handia izan	«Zelako potra dudan!»	80
purista garbizalea	«...baina beste biak baino askoz puristagoa zen musika kontuetan...»	86
rauka-rauka Korrika egitearen soinua	«Rauka-rauka, Rauka-rauka, Rauka-rauka...»	73
samar franko, nahiko	«Adats luzeko mutil hura inuxente samarra eta maltzurkeriarik gabekoa izan zen beti...»	33
sarkor zorrotza	«...irribarretxo gogoz erantzun, baizik eta begirada zeharo sarkor eta erasotzaile batez, bere burutik gai haiekin inolako zerikusirik ez zuten...»	36
sekulako izugarritzko	«Horren ondorioz, sekulako aldaketa egon zen ikasle ereduaren...»	28
sotil modu fina, ederra	«Horregatik, aurrerantzerako prestatuta zeukaten ekintza, askoz sendoagoak eta errukibakoak izan arren, modu sotilagoan burutu beharko zituzten.»	19
sumatu nabaritu, sentitu, antzeman	«Gorputz osoa adrenalinez gainezka sumatzea ...»	80
suminduta amorratuta, errabiatuta	« Suminduta geunden plantoiarengatik eta gure arrakasta faltagatik, baina ez zitzaigun bestelako estrategiarik burutzen.»	58
suplizio zigor luze jasanezina	«...agian horixe izango da onena, ze hau sekulako suplizioa da...»	76
susmatu irudipena izan	«... susmatzen dut beranduegi dela kopiatu beharko nukeen guztia kopiatzeko...»	78
sutan haserre bizian	«Horregatik hainbeste prozesio eta hainbeste ostia! —esan zuen Martinek sutan ...»	60
tapa-tapa urratsen soinua	« Tapa-tapa , tapa-tapa, tapa-tapa...»	69
taup-taup bihotzeko taupaden soinua	« Taup-taup , Taup-taup, Taup-taup...»	74
tentuz zuhur, zuhurtzia	« Tentuz ibili nire amarekin.»	91



tiki-taka erloju orratzen soinua	« Tiki-taka , tiki-taka, tiki-taka...»	68
trauskilkeria baldarkeria, zakarkeria	«Ume aurpegiko mutil hark oso zintzoa ematen zuen, baina trauskilkeriak egin behar zirenean beti lehenengoa izaten zen.»	84
tunante alproja, beti parrandan dabilena	«...ordura arte estudiante tunanteen artean ohikoa zen bizimodua egiten zuten jauregi hartakoek ere...»	86
tuno unibertsitateko gazte kantariak	«...eta gertaera bat egon zen ordura arteko estatusa hankaz gora jarri zuena: pertsonaje bitxi batzuen agerpena, tunoen etorrera, hain zuzen.»	15
tutik ere txintik ere, ezertxo ere	«Malagako gorabeherei buruz tutik ere ez kontatzeko geratu ginen.»	64
txinpartak atera argi eta soinu eztdantxoa	«...entxufe askok txinpartak ateratzen zituzten...»	83
txirikorda ile trentzatua, ile-korda	«Sasoi hartan oso arropa koloretsuak janzen zituen eta bere ile luzea txirikordaz apaintzea gustatzen zitzaion.»	86
txurrunpinplan ederto baten	«Gero txurrunpinplan , arda u ta pattara, katuak hartuta, zabu-zabuka.»	21
txutxumutxuka marmarka	«...eta besteak ikasi nahi ez eta txutxumutxuka edota elkarriketak sortzeko ahaleginetan.»	12
ugazaba jabea	«...etxearen ugazaba , berrogeitaka urteko andre aristokrata bat...»	90
upel upa, barrika	«...garajea upelaz eta botilaz Beteta zegoelako...»	92
urri eskasa	«...ozpinen erosketak askoz urriagoak izaten ziren gureak baino...»	42
xelebre bitxia, txistoso	«Josu eta nik kantatu eta txalo egin genezake eta zuk, Martin, dantzan, zure keinu xelebre horiek guztiak erabiliz.»	55
zabu-zabuka alderoka, mozkorren eraginez	«Gero txurrunpinplan, arda u ta pattara, katuak hartuta, zabu-zabuka. »	21
zakuratu zakuan gorde	«Ganbarara igota ez zuten arazo handirik izan denbora gutxitan dozenaka armiarma eta labezomorro zakuratzeko... »	98
zantarrok itsusiok	«—Hobe zenukete zuek ere eurengandik zeozer ikastea, zantarrok! »	17
zartada zartakoa, kolpea	«Aldapa handi samarra zen eta behera heltzean zartada itzela hartu zuen kotxeak horma baten kontra.»	99
zatar indezentea, zahar-itsusi-zikina	«Teletienda programa ematen ari ziren eta aurkezlea, amantal zeharo zatarra jantzita zeukan gizon berritsu bat...»	37
zeharo guztiz	«...begirada zeharo sarkor eta erasotzaile batez...»	36
zentzugabekeria logika gabekoa, ziztrinkeria	«...oraindik orrietan zentzugabekeriak baino ez ditut idatzi...»	77
zereko zera zertzeko ez-dakit-nongo ez-dakit-zer...	«Dena bideratuta zegoela ematen zuen eta zereko zera zertzeko esan diodanean txalo bat eman dit.»	60
zimeldu galdu, freskotasuna galdu	«...gereziondo sendoei loreak zimeldu egin zitzaizkien...»	97
zimurtu tximurak atera, lisutasuna galdu	«Hobe izango dut denak plastifikatzea, ez zimurtzeko eta azterketan errazago ateratzeko...»	72
ziraun suge antzekoa	«Horiez gain, ziraun luze bat atzeman zuten...»	98
zirriak egin ukituak lizunak egin	«Dantzan hasi gara, musuka ere bai, zirriak egiten ere bai...»	62



zirt edo zart erabakia hartu	« Zirt edo zart egin behar zenean, momentu klabeetan, jendea desagertzen hasten zen...»	44
zita hitzordua	«Eguerdirako, ostalari andreak esan zuenez, primeran ikasita geneukan eta neskekiko zitara berandu ez heltzeko esan zigun.»	56
zizpuruka hasperenka	«...atsoarentzat ustekabe desatsegina izan zen hura, eta zizpuruka irakurri zuen oharrean ipintzen zuena...»	104
zonbi egon esnaturik baina lotan bezala	«Honezkero ez dakit zer idazten duda ere, ze guztiz zonbi nago ...»	72
zurrutada trago, hurrupada	«...eskuz esku pasatzen ziren katxiei zurrutada luze batzuk emanda, pixka bat lasaitu zen.»	35